02. Hirigintza-teoriarako sarrera

1. Sarrera. Hirigintza diziplina nahiko berria da: XIX. mendean jaio eta XX. mendean teorikoki garatu da. Gaur egun hiriaren inguruan lan egiten ari dira geografoak zein soziologoak, arkitektoak, ingeniariak, historialariak, filosofoak, idazleak eta bestelako artistak. Hirigintzako bibliografia ugaria gertutik jarraitzea ia ezinezkoa da. Hirigileei esaten zaie arkitekoen artean "letrakoak" direla, hiriari buruz teorizatzea gustatzen zaielako.
2. Hirigintzaren definizioak:
    - *Hirigileen Kontseilu Europarra*ren ustez: "Hirigintza eta lurraldearen antolakuntzak lurzoruaren garapen eta erabilerarekin erlazionatutako jarduera guztiak barnean hartzen dituzte. Hirigintzak espazio-maila edo eskala guztietan dihardu: erdigunean, aldirian, metropolian, eskualdean, nazioan eta eskala internazionalean. Hirigintza lurzoruaren garapenaren sustapenaz, hobetzeaz eta kontrolaz arduratzen da, guztien ongiaren mesedetan, baina gizabanakoaren eskubideak errespetatuz. Etorkizunerako aurreikuspenak egiten ditu, aldaketa fisikoa eta soziala proiektatuz. Hiri-plangintza ez da independientea, sektore pribatua nola publikoarekin lan egiten baitu".
    - Harluxet hiztegi entziklopedikoaren arabera: *Urbanizatu*: Artifizialki mugaturiko lur-saila bizitegi-nukleo bihurtu, bertan kaleak, estolderia, kanalizazio elektrikoa, lorategiak, etab. eginez. *Hirigintza*: Hiri-plangintza, hiriak biztanleen beharretara egokitzeko bitartekoen multzoa; delako plangintza eta bitartekoen azterketa. Hirigintza hiri idealaren eredua aurkitzea bada, hiria bera bezain zaharra da. (…)
    - Hortaz: *Urbanizatu*: Lurraldea hiri bihurtu; lurraldea eraiki. *Hirigintza*: Lurraldearen eraikuntza.
3. Hiriaren 3 dimentsioak: Urbs, civitas eta polis, hirurak batera. Greziarren eta erromatarren kontzeptuak.
    - Urbs: Errealitate fisikoa. Espazio eraikia.
    - Civitas: Gizarte-errealitatea. Hiritarrak, hirietako egoileak.
    - Polis: Errealitate politiko-administratiboa. Udalerritik eremu metropolitarrera.
4. Hirigintzaren 3 tradizio edo ikuspegi nagusiak:
    - Ikuspegi estetiko eta artistikoa: Morfologismoa. Hirigintza forma-arazo gisa. "HIRIGINTZA ARTEA DA". Pizkundean eta Barrokoan garatutako ikuspegia (betidanik egon bada ere). Adibideak: Vitruvioren hiri ideala. Filareteren *Sforzinda*. Scamozziren hiri ideala. Palmanova, 1593-1623an sortua. Domenico Fontana arkitektoak hiribide zabalak irekitzen ditu Erroman, monumentu nagusiak lotuz, obeliskoak ezarriz, eta perspektibak luzatuz, Sixto V.a aita santuaren aginduz, 1590ean. Palermoko Cassaro (gaurko Vittorio Emanuele) kalea, 1564-1570, maila-aldaketa handikoa (harresien barnean 28 metro), 1,8 kilometrotik 6,1 kilometrora luzatzen da; geroago, 1582-1583an bi ate monumentalak egiten dira, *Porta Felice* eta *Porta Nuova*; 1597an Maqueda kale elkarzuta irekitzen dute, gurutzean *Quatro Canti* plaza sortuz; horrela, Aragoiko Erresumarena zen Siziliako hiriburuari sona internazionala eman nahi zitzaion. Eraberritze pizkundetarra Parisen, Enrique IV, Luis XIII, Luis XIV eta Luis XVak sustatua (~1590-1790); Mansarten Vendome plaza, 1699; Frantziako Iraultzan, 1792an, Luis XIV.aren estatua suntsitzen dute; Parisko Komunan, 1871n, aldiz, Napoleonena. Albert Speerrek nazientzako Berlinen egindako plangintza neoklasiko frantziarra, 1938. Leon eta Rob Krier, Benta Berrirako plangintza, 1990.
    - Ikuspegi zientifiko eta teknikoa: Funtzionalismoa. Hirigintza zentzuzko jokaera gisa. "HIRIGINTZA ZIENTZIA DA". XIX. mendean garatutako ikuspegia. Adibideak: Haussmann prefektoa Parisen, 1851-1870 (polizia-kontrolean oinarritua). Ildefons Cerdaren Bartzelonako zabalgunea, 1859 (higiene eta zirkulazioan oinarritua). Secundino Zuazoren Bilboko zazpikaleak eraberritzeko proposamena, 1923. Walter Gropius eta Le Corbusierren ikerketak, 1922-1930 inguruan. Walter Christallerren Erdigunearen Teoria, 1933koa, hirien kokagunea haien eragin-eremuaren araberako ikuspuntu ekonomiko-zientifiko batetik azaltzen saiatu zena.
    - Ikuspegi filosofiko eta politikoa: Utopismoa. Hirigintza gizarte-aldaketaren bitarteko gisa. "HIRIGINTZA PENTSAERA DA". XIX. mendean garatutako ikuspegia. Adibideak: Robert Owenen *New Lanark* (Eskozian 1785ean kotoia ekoizteko sortutako lantegi-hiria; 2.500 pertsona; Erresuma Batuko lehen haurtzaindegia) eta *Harmony* hiriak (azken hau 1.200 pertsonarako pentsatua, 500 Ha-tan, 2.200 x 2.200 m), 1817-1825. Charles Fourierren falansterioa (1.620 pertsona 250 hektareatan, 1.500 x 1.500 metroko plaza), 1841. Andre Godinen Guiseko (Frantzia) familisterioa edo "Gizarte-jauregia", 18 Ha, 1.200 biztanle, 1860-1880.